

Lantokiez gaindi antolatzeko eta ekintza soziosindikala indartzeko ABIATU tresna berria sortu du LABek

Sindikatuaren iritziz, testuinguruak ziklo mobilizatzaile indartsuaren beharra du eta hurrengo hilabeteetan borroka sozio-sindikalak hauspotzeko helburua izango du gaur martxan jarritako ABIATUK.

Abenduraen 11 honetan, LABeko kideok Ekintza Sozialeko Komunitatearen aurkezpena eta lehen ekimena egiteko elkartu gara Bilbon. ABIATU jarri diogu izena, horixe egiten ari garelako: sindikalismo borrokalariaren tresna berri bat martxan jarri. Horretarako, aurkezpen ekitaldia egin dugu Bidebarrieta Kulturgunean eta ondoren kaleko langile inkesta egin dugu langileen bizi-baldintzen inguruko ezagutza izateko, hausnartzeko eta hausnartuarazteko.

Prekarizazio eta pobretze prozesuak ez dira soilik lantokietan ematen, langileon bizi-baldintzen okertze orokor bat ematen ari da, lantoki barruko eta kanpoko errealitateak elkarloturik daudelarik. Horregatik, bide berriak esperimentatu eta saiakera berriak egiteko unea dela deritzogu. ABIATUren bidez LABen jardun sozio-sindikalean lantokitik lurralderako jauzia eman nahi dugu alde batetik, eta bestetik, bizi-baldintzen inguruko lanketetan arreta jarri.

Kalean sindikalismoa egiteaz ari gara. Borroken elkarrekintza bultzatu nahi dugu enplegua, lana bere osotasunean eta bizi-baldintzak ardatz hartuta. Lanketa ezberdinak egingo ditugu: lantokietako borrokei irismen soziala eman eta bizi-baldintzen eremuko borroka landu, etxebizitza eskubidearen lanketa, antirrazismoa, edota trantsizio ekosozialista izango dira landuko ditugun eremuetako batzuk. Horretarako, lantokietan antolatzen garen bezala bizitokiaren araberako sareak eraikitzeke apustua egiten dugu, langileon eguneroko bizitza gertatzen den eremu horietara hurbiltzeko.

Langileon bizi-baldintzak hobetzeko eta eraldatzeko tresna izatea, horixe da Ekintza Sozialeko Komunitatearen bidez jorratu nahi dugun erronka. Parte hartu nahi duten afiliatu guztiei irekitako sarea izango da, urratsez urrats osatu eta aberastuko dena.

Euskal Herrian aldaketa sakonak posible egiteko borroka egitea da LABen hautua. Indar harremanak langileon bizitzak erdigunean jartzen dituzten politikak egin daitezen borrokatzeko eremu berriak eta borroka berriak ireki behar direlako sortu dugu ABIATU, sindikalismo borrokalariak urrats berri bat emateko proposamena.

Euskal Herrian, 2021eko abenduaren 11an